

% **153,3** handitu dira **aparteko zuzkidurak eta hornidurak**, negozioaren arriskuak estaltzeko **zuhurtzia goreneko** irizpideak ezarrita

Kutxabankek 170,2 milioi euroko irabaziekin amaitu du lehen seihilekoa, %18,1 gehiago

- **Interesen Marjina %5 igo da lehen hiruhilekoaren aldean eta ekitaldia iazko mailaren gaineratik amaitzea aurreikusten du. Oinarriko Marjina %0,5 hazi da urteartean**
- **Mailegu hipotekarioetan eta kontsumoan seihilekoan errekorra lortu da, %18,8 eta %24,3 igo baitira hurrenez hurren**
- **Aseguruen ekarpena 47,7 milioikoa izan da ekainaren amaierara arte, %13,7 gehiago**
- **Zalantzazko aktiboak 400 milioitan murriztu dira seihilekoan eta berankortasuna %5,66an kokatu da, alorraren batez bestekoari 3 puntu baino gehiago aterata**

2017ko uztailaren 27an. Kutxabank Taldeak 2017ko lehen seihilekoan **170,2 milioi euroko irabazi bateratua** lortu du, iaz garai berean baino **%18,1 gehiago**. CajaSur erakundeak 12,4 milioi euroko ekarpena egin du, gainera.

Emitza hau interes tipoak inoiz baino beherago egonik lortu da, oro har **baldintza ekonomiko hobekin** baina oraindik ere ziurgabetasun handiarekin, banka alorrean **mugimendu korporatibo** garrantzitsuak egin diren bitartean, eta ikuskaritzaren eta araudiaren aldetik **eskakizun-maila handia** izanik. Honekin guztiarekin, urteko lehen zatian nazioarteko rating agentzia handiek banka **Taldearen sendotasuna alorreko onenen artean** aintzatetsi dute.

Norbanakoen eta enpresen finantziarioak, aseguruaren negozioak eta bezeroen baliabideek suspertuta igo da ohiko banka negozioa

Testuinguru honetan, lortutako irabaziak erakundeak bere buruari jarritako helburuekin bat datoz, eta **banka-jardueraren bilakaerak aurreikuspenak gainditzea** lortu du. Ohiko negozioak hainbat faktore izan ditu alde, batik bat finantza-produktuen kontratazio

bolumenean izaniko gorakadak –errekorrak lortu dira enpresen, norbanakoen eta familien finantziazioan–, **aseguru en negozioak** izan duen ekarpen errepikaria, eta **bezeroen baliabideetan** lortutako bilakaerak positiboa, inbertsio fondoak eta ageriko aurrezkiak buru direla.

2017 urteko lehen zatian, Kutxabanke bere **zorrotz industrialak berregituratzen** jarraitu du, honen egoera kapitalaren tamainara egokituz eta konzentrazioko arriskua murriztuz.

Politika honen ondorioz, **Finantza Operazioengatik eta truke aldaketako emaitzak 243,8 milioi eurokoak** izan dira, eta ia osorik aparteko horniduretara eta saneamenduetara bideratu dira.

Aro aldaketa marjina nagusietan

Erreferentziazko interes tipoen beheranzko presioa nagusi izan arren, 2016 urtearen amaieraz geroztik **Interesen Marjinak** hobera egin du nabarmen. Honela, bigarren hiru hilabeteetan **%5 egin du gora** 2017ko lehen hiru hilabetearekin alderatuta, urteko lehen erdian **276,4 milioi** eurora iritsi da. Gainera, erakundeak dituen aurreikuspenen arabera, seguruenik positiboan jarriko Marjina da ekitaldi honen amaierarako.

Zerbitzuengatik sarrerak edo komisioak **185,5 milioi eurora** iritsi dira, iaz garai berean baino **%7,7 gehiago**, batik bat Inbertsio Fondoan eta pentsio planen hazkundeak, eta ordainbideen gorakadak suspertuta, bitarteko digitalen eta kontsumoaren hobekuntza alde izan baitituzte.

Interesen Marjina hazi egin da lehen hiru hilabeteetatik hona, Oinarriko Marjina positiboan da eta Marjina Gordina % 28,2 hazi da

Honekin guztiarekin, **Oinarriko Marjinaren** saldoa (interesak eta komisioak) **461,8 milioi** eurotan kokatu da, **%0,5 gehiago**, azken hilabeteetan sumatutako joera aldaketaren eta hobekuntzaren erakusle.

2017ko lehen sei hilabeteetan gertatu bezala, enpresa partaidetuen berregituraketak eta arestian aipatutako emaitzek, beherakada ekarri dute **dibiduengatik sarreretan eta baliokidetasunetan**, atal hau **38,8 milioi** eurora iritsi baita, iazko ekainean baino **%55,3 gutxiago**.

Deigarria izan da, halaber, **aseguru en jarduerak** izan duen ekarpen errepikaria, Beste Ustiapen Emaitzak epigrafean biltzen dena. **%13,7 hazi** da eta 47,7 milioi eurora iritsi da.

Honekin guztiarekin, **Marjina Gordina %28,2** hazi da, eta **782,2 milioi** eurotan kokatu da.

Gastuei eusteko eta Bankuaren eraginkortasuna hobetzeko politikaren eraginez, **Administrazio Gastuak %3,3 murriztu** dira 2016ko lehen seihilekoaren aldean, pertsonaleko gastuak %4,3 gutxituta, eta %0,9 gastu orokorrak. Beherakada hauek **Ustiapen Marjina 438,4 milioi** eurotan jarri dute, eta **eraginkortasun ratioa %48,5en**.

Kutxabank Taldean **hornidurak eta aparteko zuzkidurak** egiteko ohikoak diren zuhurtzia goreneko irizpideen haritik, atal honek (**321,3 milioi euro**) **%153,3ko aparteko igoera** izan du, etorkizunean emaitzen errepikakortasunari baldintza hobeetan aurre egin ahal izateko.

Honekin guztiarekin, Taldearen emaitza **%18,1** hazi da, eta **170,2 milioi** eurora iritsi da.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2017ko lehen seihilekoa

Milioi euro	2017ko ekaina	% Δ
Interesen Marjina	276,4	-3,8
Komisioak	185,5	7,7
Oinarriko Marjina	461,8	0,5
Partaidetuen emaitza	282,5	145,4
Beste ustiapen emaitzak	37,9	6,6
Marjina Gordina	782,2	28,2
Administrazio Gastuak	-318,2	-3,3
Amortizazioak	-25,5	-3,6
Ustiapen Marjina	438,4	72,1
Saneamenduak eta narriadurak	-321,3	153,3
Beste irabazi eta galeren emaitzak	22,8	-17,1
Zergat eta bestelakoak	30,3	e.a.
Taldearen emaitza	170,2	18,1

Bezeroen baliabideak maila onean

Negozio sareek kudeatzen dituzten bezeroen baliabideak kementsu aritu dira eta hala erakusten dute %6,1eko igoerak eta **57.024 milioi** eurotan kokatu izanak, **xehekako sarean %4,7ko** bilakaera izan eta gero eta **handizkako sarekoa %24,4koa**.

%18,3 handitu den **ageriko aurrezkiaz** gain, nabarmentzekoa izan da inbertsio fondoen eta pentsio planen hazkundera. Kudeatutako bolumenaren **saldoak %8,4ko eta %4,3ko** igo dira hurrenez hurren, eta gora egin dute seihilekoan batutako bereganatze garbiek eta hauen balorazioek.

Kutxabank Taldeak kudeatzen dituen inbertsio fondoetan, aipagarria izan da kudeaketa delegatuko produktuek izan duten etengabeko bilakaera positiboa, hau da **kudeaketa aktiboko fondoei eta zorro delegatuei**. Balio erantsi handienetakoa eskaintzen duen zerbitzua da, eta aurtengo lehen sei hilabeteetan **800 milioi** inguru erakartzea lortu dute, iaz urte osoan baino **%153 gehiago**.

Finantziarioan seihileko aparta

Egoera ekonomikoak oro har izan duen hobekuntzak eta kaudimendun eskaria berreskuratu izanak finantziario berriari gorantz bultzatu diote, eta %72,2 hazi da, 12.268 milioira arte. **Mailegu Inbertsioak %0,3** egin du gora 2016ko ekanarekin alderatuta. **Enpresa eta erakundeei** zerbitzua ematen dien sareen negozioak bilakaera ona izan baitu, atal hau **%6,7** igo da-eta.

Kutxabank Taldeak enpresen eskuetan (ETEak eta korporazio handiak) guztira **10.406 milioi euroko finantziarioa** jarri du, iazko garai berean kontratatu zena bikoiztuz.

Aktibo finkoko inbertsioetarako finantziarioak azken hilabeteetan izan duen goranzko joerari eutsi dio eta mailegu berrien formalizazioa **%37** hazi da iaz garai berean izan zuen gorakadaren ondotik. Enpresen salmentekin lotura zuzena duen **Zirkulatzailerako finantziarioari** dagokionez, **%14** hazi da.

Euskadiko enpresen eta enpresa txikien finantziarioan duen lidertza zabaldu egin da, eta lehiakideei alde handiagoa ateratzen die

Kutxabankek duen jarduera komertzial biziak **tresna digital berrien** laguntza izan du, eta geroz eta gehiago erabiltzen dira mailegu hipotekarioak edo kontsumorako maileguak kontratatzerakoan.

Hain zuzen ere, finantziarioaren bi jarduera zehatz hauek inoizko emaitzarik onenak zenbatu dituzte seihilekoaren amaieran. **1.083 milioi** euro sinatu dira 2017ko lehen erdian **mailegu hipotekarioetan**, iaz garai berean baino **%18,8 gehiago**. **Mailegu pertsonalak %24,3** igo dira, eta **195 milioi** eurora iritsi dira, saltokietan bertan eman daitekeen merkataritza mailegua **%50** hazita.

70.000 aseguru poliza berri

Adierazi den bezala, **aseguruen negozioak %13,7 hazi** du bere ekarpena, eta igoera honetan erabakiorrak izan dira loturadun aseguruaren bilakaera, eta Kutxabanken aseguru eskaintzako produktu berrien ekarpena.

Emaitza on hauek zorro egonkorra dute oinarri, **%3,5etik gora hazten diren primekin** eta produkzio berriaren dinamismoarekin, lehen seihilekoan **70.000 poliza berri** sinatu baitira.

Bizitza Arriskuko aseguruak eta Etxebizitzakoak nabarmenak izan dira, produkzio berriko primak **%30,4** eta **%21,2 hazi** baitira, hurrenez hurren.

Urteko lehen zatian, bere bezeroen eskuetan jartzen duen poliza eskaintza zabala handitzen jarraitu du Kutxabankek. Honela, beren kabuz lana egiten duten langile autonomozko **Osasun aseguru** berria plazaratu du IMQ etxearen eskutik, bai eta **Ehorzketa aseguru** berria ere, Kutxabank Aseguruak etxeak diseinatu eta kudeatua. Azken honen ezaugarri nagusia da prima bakarreko formularekin komertzializatzen dela.

Ratio nagusiak helburuekin bat

Kutxabankek bere **berankortasun maila** txikitzen jarraitu du eta **%5,66an** kokatu da, iaz garai berean baino **oinarriko 175 puntu gutxiago**. Honela, alorrean nagusi den mailari hiru puntutik gora ateratzen dizkio, maiatzaren amaieran **%8,74koa** baitzen. Hau posible izan da zalantzazko aktiboen bolumena urteko lehen sei hilabeteetan **400 milioi** eurotan murriztu eta gero. Sustapen arriskuari lotutako berankortasuna kenduta, **Taldearen tasa %4,1ean** gelditu da. **Etxebizitzak erostera bideratutako maileguen** berankortasunari dagokionez, **%3,45koa** izan da.

Kutxabank Taldearen **kaudimenak** espainiar finantza sistemako garaienen artean jarraitzen du, **%15,2** an kokatu den **'phased in' Core Capital**-arekin, hondarearen bilakaera positiboaren eta seihilekoko mozkinaren arabera kalkulatuta.

Adierazle nagusiak erakundearen helburuekin bat datoz. Honela, Kutxabankek **Errentagarritasun eta eraginkortasun ratioak** hobetzen jarraitu du. Berezko baliabideekiko errentagarritasuna neurtzen duen **ROE indizea %5,52an** kokatu da, 2016ko abenduaz geroztik oinarriko 46 puntu hobetu eta gero, eta **ROTE indizea %5,8koa** da.